

Joera-zaleak be-zeudek euskal-idazleen artean, baiño egia esan, guziek bide berdintsutik zijoaztek. Batak ezin duna besteak asmatzen baitik. Oar zak euskal aldizkarietan ere, ainbesteko desberdintasunik somatzen al duk? "Orixe" jaunak senez diagonex, euskal-idazleok oraingoz bata besteen ikasle gaituk. Eta bestela ain gaizki bagoaz, argitara zabaldu zak beste joera-edo bear luken bide "ezkutu" ori.

Ezti esan nai onekin euskerak batere a-razorik estaukanik, oztopo-alderdi oek geiegi anpatu bear ez ditugula baiño. Euskaltzaleok, euskaldunok orobat, urri gaituk oso, eta pamili txikien akats bereziak zeuzkagu. Bata besteenean naasi bear derrior. Zer genesaiokek nekazari bat industri-teknikoen lanbidetan naastuko baukek? Ez al da berdin idazletxo tentel bat, gizon erdilandu bat filoloji-gaietan naastea? Bai, euskera etxekoa izan-da...

Amaitzera noakik, adiskide. Bestela neroni naastuko nauk ez dagokidan arloan. Onde esanak onartu, ta oker daudenak barkatu. Erantzun nai izan ezkerre zabalik dauzkak YAKIN onen ateak.

Bastarrika'tar Iñaki

### E U S K A L T Z A I N D I A R I . -

Ausarkeri bada ere ez dugu zenbaki au itxi nai, aspalditxetik darabilgun eskaritxe edo idaroki bat azaldu gabe. Gazte guzien partez doa.

Zergatik ez du gure Euskaltzaindiak urteroko "txapelketa" bat antelatzen? Eleberri-sariketa bat, alegia. "Urkijs-Saria" edo besten bat, mundu guzikoa "Nobel-Saria" dan bezela, edota Españi'koa "Premio Nadal", eta beste ainbeste diran bezela?

Askoren almenak esnatu ta bizkortuko lituzke. Gaiñera, urteroko nobela saritu orrek bere etsa aterako luke aldi luze gabe, ta aisa salduko litzake. Euskal idazle gazteok ere, beste erri guzietakeak bezela, geren estimuloak bear ditugu euskal-lanari ekiteke. Diru-kontua? Nun dira euskaltzale aberatsak? Askoren arten batzokitxe bat zergatik esatu ez? Ziur gaude gure euskeraren zain ditugun gizonak, gazteon eskaria kontutan artuko dutela. Milla esker!

Y A K I N